

LARRIALDI PLAN DIGITALA



Eñaut Lexartza eta Eki Izagirre

Urbi BHI


DBH 3.C

LABURPENA

Gure proiektuaren helburua larrialdi kasu batean institutoko eraikina arinago hustutzea da. Horretarako leku argietan kokatutako QR eta NFCak erabiliko genituzke. Larrialdi alarma jotzean, momentu horretan gelan dagoen irakasleak QRa edo NFCa eskaneatuko luke eta argibide batzuk agertuko litzaizkioke Google inprimaki baten bidez. Inprimakiko pausu bakoitza bete ostean eginda moduan markatuko luke eta behin kanpoan bilduta informazioa bidaliko luke. Atezainak eta Irakasleak aldatzen doaz klasez-klase eta edozeini tokatu ahal zaio koordinatzaile izatearen ardura; zaintzan dagoen irakasle bati edo ordezko berri bati. Era honetan antolaketa hobetzen da, bakoitzari dagozkion betebeharrak azalduz urratsez urrats.

ARAZOA

Larrialdi plana ikusita konturatu ginen arazo batzuk zeudela. Lehenengo, 12 koordinatzaile daude gure institutuan larrialdi batean. Bakoitzak txaleko berdea jarri behar du ebakuzioa balego eta korridore osoa irteten dela ziurtatu behar da. Koordinatzaileak ez dira pertsona finkoak baizik eta larrialdiaren momentuan gela batean dagoena izan behar da.



Beste arazoetako bat litzateke planoak ez direla oso argiak etorri berri diren irakasle eta ikasleentzako, ikastetxearen egitura oso berezia baita. Gainera gela batzuetan ez dago ez argibiderik ez planorik. Planoetaz aparte larrialdi planeko informazioa ez da oso erreza ulertzeko. Larrialdi egoera batean ezin zara 2 minutu ibili plana aztertzen. Denbora oso baliagarria da eta segundo bat ere ez ezin da galdu. Metodo berria denbora aurrezteko eta erabakiak arinago egiten laguntzen du.

MATERIALAK

HEMEN DAUDE ERABILI DITUGUN MATERIALAK:

Material fisikorik ia ez dugu erabili proiektua egiteko. Batez ere tresna informatikoekin lan egiten ibili gara gure lanak hori eskatzen zuelako.

MATERIALAK	ZERTARAKO?	IRUDIA
Google formularioak	Bertan argibideak eta pausuak agertuko dira.	
NFC-a	Eskaneatzeko eta formularioak zabaltzeko	
QR kodeak	Formularioak hauen bidez zabaltzeko.	
Papera	QR kodeak bertan inprimatzeko.	
Inprimagailua	QR kodeak inprimatzeko.	
Txaleko	Koordinatzaileak nor diren jakiteko.	

AURREKONTUA

Erabilitako materialen gehiengoa interneten topa daiteke erabat dohainik edo jada bagenuen. Beraz, ez dugu diru askorik gastatu

MATERIALA	KANTITATEA	PREZIOA
NFC txapak	Bat gela bakoitzeko	10 unitate 8€
Txalekoak	1	5€
Imprimagailua	1	0€ gure institutokoa erabili genuelako. Beste kasu batean imprimagailua edo tinta erosi beharko balitzateke: Imprimagailua: 40-180€ Tinta: 10€tik aurrera
Papera		Institutoko papera erabili dugu. Erosi beharko baliteke: 100 orri 2€
QR kodeak	Bat gela bakoitzeko	Dohainik
Google formularioak	Bat gela bakoitzeko	Dohainik

METODOA (Nola egin)

1. LARRIALDI PLANA AZTERTU: Lehenik, larrialdi plana zehazki aztertu genuen. Horrela erabaki genuen nola egin formularioak. Adibidez koordinatzaile bakoitzari zer jarri behar genion jakiteko edo klase bat nora irten behar zen jakiteko.
2. FORMULARIOAK EGITEN HASI: Formulario batzuk egiten hasi ginen. Gero, denbora aurrera joan ala gehiago egin genituen institutu osokoak egin arte.
3. FORMULARIOAK QR-TAN ETA NFC-ETAN GRABATU: Google formulario bakoitzaren esteka NFC txarteletan grabatu genuen. Gero formularioen esteka berriro hartu eta QR kodeak sortu genituen.
4. QR KODEAK INPRIMATU: Ondoren QR kodeak inprimatu eta paper txikiagoetan moztu genituen gero isatsi ahal izateko.
5. QR-AK ETA NFC-AK DAGOZKIEN GELETAN JARRI: NFC eta QR kode bakoitza berari egokitzen zaio gelan itsatsi genuen. Gela arrunten kasuan NFCak eta QRak mahaietan edo hormetan itsatsita jarri genituen. Koordinatzaileen kasuan, haiek txalekoa izango dutenez, bertan jarri genituen QRak eta baita NFC txartelak.
6. PROIEKTUA FROGATU: Oraindik itxaroten ari gara proiektua frogatzeko. Zuzendaritza taldeari baimena eskatu behar diogu eta hauek baietz esan behar dute. Gure ideia da klase bat edo bi hustea metodo digitalaren bidez.

EMAITZA

QR kodea mobilarekin eskaneatuz inprimakia zabalduko da.



Guztira 12 inprimaki prestatu ditugu 10 koordinatzaileentzako, eta beste bat koordinatzaileak ez diren irakasleentzako.

Hemen dugu koordinatzaile baten txalekoan. Koordinatzaileen txalekoetan bertan NFC txartel bat eta QRa jarriko ditugu.




*

Hemen dugu 5. koordinatzailearen QR kodea eta inprimakiaren helbidea eta inprimakiaren ikuspegia mugikorrean.

 <p>https://forms.gle/E8qrCEdeXseFq7AGA</p> <p>QR kodea eskaneatuz edo estekan klik eginez inprimaki osoa ikusi daiteke.</p>	 <p>9:16</p> <p>docs.google.com/forms/d/€</p> <h3>5. KOORDINATZAILEAK EBAKUAZIOAN EGIN BEHARREKOA</h3> <p>EBAKUATZEKOTAN PAUSU HAUEK JARRAITU BEHAR DITUZU.</p> <p>Iniciar sesión en Google para guardar lo que llevas hecho. Más información</p> <h4>EBAKUAZIO TALDEKOA DATORREN BITARTEAN</h4> <ul style="list-style-type: none"><input checked="" type="checkbox"/> Ikasleei dena bertan behera uzteko esan.<input type="checkbox"/> Ebakuazio bitartean DBH 3.Bkoei jarraitzeko esan. <p>Hurrengo aginduak eman:</p>
--	--

Inprimaketan, betetako urratsez gainera beste zenbait datu ere jaso daitezke: Gelan zenbatutako ikasle kopurua, taldearen, irakaslearen izena, koordinatzaile bakoitzak ateratako talde kopurua, oharrak..

Larrialdi planeko arduradunak irakasleek eta koordinatzaileek bidalitako formularioen erantzunak aztertu ditzake.



The screenshot shows a Google Forms interface. At the top, the title is 'KOORDINATZAILE 5' and the description is 'Drive-n gorde dira aldaketa guztiak'. The form has three tabs: 'Galderak', 'Erantzunak' (which is active and has a '2' next to it), and 'Ezarpenak'. The main content area contains a floor plan diagram with several rooms labeled 'DBH 1A', 'DBH 1B', 'DBH 1C', and 'DBH 1D'. Below the diagram is a purple header 'KANPOAN ZAUDENEAN EGITEKO'. The first question is 'Gela guztiak irten dira? Zenbat?' with a text input field containing the number '5'. The second section is 'OHARRAK' with a text input field containing '3Akoak ez zeuden gelan.'.

ONDORIOAK

Alde txarra da jende guztiak ezin duela edo ez dakiela NFCak edo QR kodeak eskaneatzen, agian ez delako horretan trebea edo ez duelako mugikor aproposik. Kasu hauetarako egin daiteke inprimakiaren kopia bat paperean inprimatzea, eta kopia hori jartzea QR kodearekin batera. Baina inprimakia aldatzen den bakoitzean berriro ere inprimatu beharko genuke.

Alde ona da filosofia hau beste arlo batzuetan ere aplikatu daitekeela. Edozein prozedura azaltzeko inprimaki batean urratsak adieraziz eta lotura bat kodifikatu leku egokian jarritako NFC edo QR kodeetan.

HOBEKUNTZAK

Formularioekin beharrez sistema hau aplikazio baten bidez egin daiteke. Era honetan erregistratu ahal izango ziren ebakuzioan eman diren gertaera guztiak zehatz-mehatz zein unetan gertatu diren, eta horrela Larrialdi Plana aztertzeko eta hobetzeko tresna egokia izango genuke.